



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ni, berriz, bizia eta bizia ugari gainera izan dezaten etorri naiz”

2023ko apirilaren 30a  
4. Pazko igandea (A)

### Joan 10, 1-10.

“Benebenetan diotsuet: Artegian atetik barik, beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harraparia. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Hari irekitzen dio atezainak, eta haren ahotsa entzuten dute ardiek; ardi bakoitzari bere izenez deitu eta artegitik ateratzen ditu. Bere ardi guztiak atera dituenen, aurretik joaten zaie, eta ardiek atetik jarraitzen diote, ezaguna baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ezaguna ez dutelako”.

Adibide hau eman zien Jesusek, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Orduan, honela azaldu zien Jesusek: “Benebenetan diotsuet: Neu naiz ardientzako atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapariak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Neu naiz atea; ate honetan zehar sartzen dena, onik izango da, eta ez du inolako eragozpenik izango larreak aurkitzeko. Lapurra ez doa artaldera ebatsi, hil eta hondatzera baizik. Ni, berriz, bizia eta bizia ugari gainera izan dezaten etorri naiz”.

Neu naz ardien atea. Kanpora bota egiten dauan Sinagogaren ondoan Jesusen komunitatea dago: artaide bat, eta erdi-erdian bizia, buru eta batasuna dan artzaina dogularik.

## ATEA

*José Antonio Pagola*

Jesusek kontakizun metaforiko bat proposatu dio fariseu-talde bati. Gogor kritikatzten ditu Israelgo buruzagi erlijiosoak. Artzaintzatik hartua da pasadizoa. Artaldea artegian bildua dago, hesi edo pareta txiki batez inguratua, artzaina atean zaindari dela. Jesusek, hain juxtu, ardietara iristeko den «ate» horretan du bere arreta.

Artegira sartzeko bi era dira. Artaldearekin zer egin nahi den da kontua. Norbait artegira hurbildu eta «*atetik sartzen ez bada*», baizik «*beste alde batetik*» salto egiten badu, bistan da halako hori ez dela artzaina. Ez doa bere artaldea zaintzera. «*Arrotza*» da; ostera, «*akabatzea eta kalte egitera*» doa.

Benetako artzainak guztiz desberdin jokutzen du. Artegira hurbiltzean, «*atetik sartzen da*», ardiei beren izenaz dei egiten die eta haiek kasu egiten diote. Kanpora atera eta denak bildu dituenen, aurrean jarri eta gidari doa non jana izango duten belardira. Ardiek jarraitu egiten diote, ezaguna baitute haren ahotsa.

Zer sekretu du, ordea, «ate» horrek, bertatik igarotzen diren egiazko artzainak legezkatzat emateko? Aldiz, «*beste nonbaitetik*» sartzen diren arrotzak, ez artaldea zaintzeko, baizik kalte egiteko, salatzeko? Fariseuek ez dute ulertu zer ari zaien Maisu hura.

Horregatik, kontakizunaren giltza eman die Jesusek: «*Benetan diotsuet: neu naiz ardien atea*». Jesusek ireki duen bidea hartu eta haren ebanjelioa biziz jarraitzen diotenak: haiek dira egiazko artzainak: jakingo dute nola janaritu kristau-elkartea. Artegian sartu, Jesus alde batera utzi eta haren gauzei ezjakinarena eginez sartzen direnak: haiek dira artzain arrotzak: kalte egingo diote kristau-herriari.

Hainbat Elizatan denok ari gara sufritzen, asko: bai artzainak, bai Jainkoaren herria. Hierarkiaren eta kristau-herriaren arteko harremanak sarritan bizi ohi dira errezeloz, hika-mika eta era tirabiratsuan: badira ukatuak sentitzen diren gotzainak; badira marjinauak sentitzen diren kristau-sektoreak.

Errazegia izango litzateke guztia Hierarkiaren abusuzko agintekeriari leporatzea edo fededunen menderakaitasun heldu gabeari. Sakonagoa da erroa eta konplexuagoa. Oso egoera zaila sortu dugu: bakea galdu. Hargatik, gero eta gehiago izango dugu Jesusen beharra.

Geure baitan hazarazi beharra dugu elkarrekiko errespetua eta elkartasuna, elkarrizketa eta egia ebanjelikoaren bila egiaz ibiltzea. Ahalik lasterren behar dugu arnastu Elizan maitasun-giro handiagoa. Ezin irtengo gara krisialdi honetatik, guztiok Jesusen espirituaren bila jotzen ez badugu. **Hura da «Atea».**